

**EUSKADI BASQUE COUNTRY EGUNA****“ABANGOARDIA MAITE DUEN ANTZINAKO HERRIA” JARDUNALDIA  
JORNADA “UN PUEBLO ANCESTRAL QUE AMA LA VANGUARDIA”**

2019-06-19 Bilbao 19-06-2019

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Herri agintariok, herri ordezkariok, euskal gizartearen ordezkariok, jaun andreok, egun on eta eskerrik asko gurekin izateagatik.

Aurtengoan lehen aldiz, “Euskadi Basque Country Eguna” ospatzen dugu.

Fernando de Magallanes-en eskutik, Juan Sebastian Elkano-k munduari bira eman zion espedizioa, Sanlucar de Barrameda-tik atera zeneko 500 garren urtemugan.

Jardunaldi hau Nazioartekotzeko Esparru Estrategian aurreikusitako ekimenetako bat da.

“Euskadi-Basque Country” herri-markaren garapenean laguntzen duten erakunde, enpresa eta pertsonen zuzendutako esperientzien truke eta lan jardunaldia da gaurkoa.

Esta Jornada responde a tres objetivos compartidos:

- Conocer experiencias de desarrollo de marcas-país o “nation branding”;
- Promover la utilización de la marca Euskadi Basque Country por parte de los agentes vascos en su proyección exterior; y
- Dar a conocer casos de éxito que pueden servir de referencia a instituciones, entidades y empresas vascas que quieren poner en marcha iniciativas de internacionalización.

Son objetivos estratégicos para un País que conoce, vive y cree en el poder de la internacionalización y la apertura al exterior.

Berezko balio berezietan oinarrituta dagoen herrialde-marka indartsua izatea aktibo izugarria da, kanpoan balio berezia ematen duena. Xede horrekin, Euskadi Basque Country Egunaren lehen edizio honek, “Abangoardia maite

duen antzinako herria” izenburua darama. Entzun berri dugu Kirmen Uriberen eskutik iaz aurkeztu genuen liburuaren izenburu bera da.

“Un pueblo ancestral que ama la vanguardia.” Este concepto resume nuestra personalidad e identidad propia. Una identidad que, como hemos podido escuchar en palabras de Abraham Lincoln, es un árbol con raíces y un recio tronco. Un árbol cuyas ramas generosas ofrecen su sombra al mundo.

En nuestro caso el árbol de Gernika simboliza la imagen de Euskadi y el lema “eman ta zabal zazu” expresa la voluntad de nuestro Pueblo de tener una presencia propia en el mundo.

Txikiak izanik ere, euskaldunok beti izan dugu aurrera egiteko adorea. Urak bezala, handik edo hemendik, aurrera egin dugu beti, etorkizunera begira, hobeak izan nahian.

Gure baloreekin, kulturarekin, gure izateko erarekin, euskararekin, gizarte ekimen desberdinekin, enprekin, mundua ulertu eta gauzatzeko gure modu propioarekin.

Hori izan da, berez, gure nortasuna eta xedea: mundua ezagutzea eta, herri bezala, mundu zabalean bizitzea.

Horixe da Euskadi Basque Country Estrategiaren helburua eta ahalegin horretan herri-marka sendo bat izatea berebiziko aktiboa da.

Europar gaude. Mundura begiratu eta ohartuko gara Europa salbuespena dela gauza askotan. Europaren batasunak, hainbat akats izanik ere, halako amets bat izaten jarraitzen du neurri handian. Askatasunei dagokionez, gizarte politikei dagokionez, aniztasunari dagokionez.

Europa gure etxea da. Era berean, gizatalde bateko parte izateko eskubidea dugu, euskaldunon komunitatearen baitako partaide, europar izanik ere. Horregatik, gizabanako guztien eskubideak bermatu behar ditugu.

Gutxiengo guztiak errespetatu, berdintasunean bizi beste biderik ez bait dago. Guztion artean egiten dugun herria hain zuzen ere.

Zuek eta gure artean, gu eta zuen artean. Horregatik, gaurkoa, eskerrak emateko eguna ere bada. Etorri zareten guztioi eta orohar gure herria eta, honekin, gure balioak mundu guztian zehar zabaltzen ari zaretenoi.

Somos un Pueblo en el mundo. Somos un Pueblo del mundo.

Hoy damos un nuevo paso en un camino que nos conduce a ensanchar el uso de nuestra marca país, la marca Euskadi Basque Country. También a conocer las experiencias de quienes colaboran en su proyección internacional. Tenemos mucho que aprender de quienes recorren este camino internacional con esfuerzo y convicción.

Todas las personas aquí presentes, representantes de Instituciones, Universidades, Centros tecnológicos, Empresas o Asociaciones, compartimos un mismo propósito: “dar a conocer y promover en el mundo la auténtica realidad vasca plural, diversa, abierta y acogedora.”

He citado a Elkano. Está claro que este propósito compartido de apertura al mundo entronca con nuestra historia y encuentra en este Día una oportunidad para avanzar.

Nuestra determinación es seguir adelante, desde el compromiso, el consenso y el trabajo compartido. Contamos con una palabra que expresa bien esta filosofía: “auzolana”, trabajar juntos en pos del bien común. Sabemos que trabajar juntos es la única oportunidad para dar a conocer y hacer más atractivo nuestro País. Sabemos que este es un “bien común” en un mundo cada vez más abierto, competitivo y global.

La supervivencia de nuestro Pueblo siempre ha estado ligada a la capacidad de apertura y adaptación al mundo. Muchas vascas y vascos tuvieron que emigrar por razones económicas o políticas. Hemos sido un Pueblo acogido y de acogida. La globalización se ha demostrado un aliado.

Hoy, en un mundo en transformación y que se repliega, nos corresponde seguir trabajando por nuestro desarrollo y progreso con una mentalidad abierta. Tenemos que ser capaces de ofrecer la mejor Euskadi de la historia. Un Pueblo en paz, comprometido con los derechos humanos y la igualdad, solidario y consciente de que conocimiento e innovación son retos irrenunciables para construir un futuro mejor.

Indartu ditzagun beraz gure kultura, enpresak, hezkuntza, zientzia, kirolak, lankidetzak, turismoa, natura... eta zabaldu dezagun gure nortasuna mundura, auzolanean, beti baikor eta eraginkor.

Eskerrik asko denoi Euskadi Basque Country-ren alde egiteagatik.  
Egun ona izan.